



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016KO URTARRILAREN 22AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Jesus Peñagarikano Labaka
Miren Itziar Arratibel Imaz

Etorri diren zinegotziak:
Maria Iciar Jauregui Huarte
Victoria Rodriguez Feloaga

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko urtarrilaren 22an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.2016KO URTARRILAREN 8KO AKTAREN ONARPENA

2016ko urtarrilaren 8an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2016ko urtarrilaren 8an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2.- 2015EKO ABENDUAREN 15AN BURUTURIKO PERTSONAL BATZORDEAREN AKTAREN INGURUKO ERABAKIEN ONARPENA

2.1 2016KO LAN EGUTEGIEN ONARPENA

2015eko abenduaren 15eko Pertsonal Batzordean 2016 urteko langileen lan egutegiak aurkeztu ziren salbu Jon Ijurko langilearen egutegia (oporraldian baitzegoen).

Batzorde berean, Isabel Nazabalek 2016ko lan egutegian irailaren 5etik 13ra ezarri zituen opor egunak abuztura pasatzeko eskatzea proposatzen zen.

2015eko abenduaren 15eko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batze harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea 2016rako langileek aurkezturiko lan egutegiak

- Kultur etxea (Isabel Nazabalen iraileko 6 egunak abuztura pasata)
- Brigada
- Bulego orokorrak (Ion Ijurkorena aurkezteke dago)

BIGARRENA: Jakinaraztea Isabel Nazabali iraileko 6 egunak (5etik 13ra) abuztura pasa behar dituela

2.2 ORDU KONTROLARI ETA LAN TOKIAN IZAN BEHARREZKO PRESENTZIARI BURUZKO 227/2015 ALKATE DEKRETUAN ALDAKETAK ETA AZALPENAK

Ordu kontrolari eta lantokian izan beharreko presentziari buruzko dekretuaren aplikazioak sortu dituen hainbat arazo eta zalantzen ondoren aztertu dira bertan harturiko erabakiak.

2015eko abenduaren 15eko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batze harturiko

ERABAKIA

LEHENA: 227/2015 Alkate Dekretuan aipatu bezala penalizatuko dira markaketa ezak eta ez dira justifikazioak onartuko.

BIGARRENA: 227/2015 Alkate Dekretuan aipatzen den derrigorrezko presentzia ez betetzeak ordubeteko penalizazioa izango du, ez bada alkatearen baimenarekin izan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Oporrak hartzeko honako baldintzak ezartzen dira:

1. Zergabilketa: egutegi fiskalak baldintzatuko du.
 2. Idazkaria: Ezingo ditu oporrak hartu urtarrilean eta abenduan.
 3. Idazkaritza: Bertan lan egiten duten lau langileen artean ezingo dute aldi berean oporrak hartu. Idazkariak eta pertsonal administrariak batetik eta artxibo administrariak eta erregistro administrariak bestetik.
 4. Kontuhartzaileak ezingo ditu oporrak hartu urtarrilean eta abenduan.
 5. Diruzainak eta kontuhartzaitzako administrariak ezingo dute batera oporrak hartu.
 6. Hirigintza, euskara-hezkuntza eta Gizarte zerbitzuak: Departamentua ezingo da hutsik geratu.
 7. Brigada: gutxienez bi langile lanean arituko dira.
 8. Kultur etxea: Ezingo dute bi langilek batera oporrak hartu.
- Oporrak disfrutatu baino lehen eskaera egin behar da:
 1. Astebete edo gutxiago bada aurreko astean eskatu beharko da gutxienez.
 2. Astebete baino gehiago bada bi aste lehenago eskatu beharko da gutxienez.
 - Departamentuko buruak kontrastatu behar ditu bere departamentuko opor eskaerak eta araudia betetzen denaren ardura hartu.
 - Aparteko orduak konpentsatzea:
 - Aparteko orduak kitatzeak hilabete edo gehiagoko konpentsazioa suposatzen duenean, ezingo da bi aste baino gehiago batera hartu.

LAUGARRENA: pertsonal departamentura bidaltzen diren eskaera arruntei (oporrak, baimenak, orduen onarpena...) ez zaie derrigorrez sarrera erregistroa eman behar. Pertsonaleko departamentuko e-mailera bidali eta erantzuna bidaliko da. Brigadaren kasuan, pertsonaleko kasilerioan utziko dute, eta bertan utziko da erantzuna.

BOSGARRENA: jakinaraztea langile guztiei hartu diren erabakiak eta irizpideak.

2.3 JESUS M^a OLAZABAL MARTINEZEN ARAZOAREN 30EKO SALDO NEGATIBOAREN KONPENTSAZIOA.

227/2015 allkate dekretu bidez onartu zen besteak beste, arautegia martxan jartzen hasita 3 hilabeteko epea izango zela 3 orduetik goragoko edo gutxiagoko saldoak berdintzeko.

Epe hori amaitutakoan A.2B) atalean ezartzen den moduan egingo zela, hau da “Saldo negatiboa: 3 orduetik gehienezko horretatik gorakoa kitatzeko horrela egingo da: Norberaren aukerako ordu



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

kopurutik kenduko da zuzenean (gai partikularrak), langileak halakorik badu, salbu eta langileak hurrengo nominako ordainsaritik deskontatzea eskatzen badu”.

Jesus Olazabalek azaroaren 30ean 36 ordu eta 27 minutuko saldo negatiboa dauka. Araudia aplikatuz 5 egun opor deskontatuko zaizkio.

2015eko abenduaren 15eko Pertsonal Batzordearen irizpena kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Jesus Olazabali 5 opor egun deskontatzea azaroaren 30eko saldo negatiboa konpentsatzeko.

BIGARRENA: Jakinaraztea erabaki hau Jesus Olazabali.

HIRUGARRENA:

3.- DAMASORO TERRENOA BANATZEKO LIZENTZIAREN LUZAPENAREN ONARPENA

Nekane Lazkano Prietok eta Aitor Otaegi Larrartek Damasoro lursailaren banantze lizentziaren bigarren luzapena eskatzen dute aurrekoan aipaturiko arrazoi berdinegatik (036 sarrera erregistroa duen eta 2016ko urtarrilaren 12koa den dokumentu bidez).Lizentzia hori 2015eko uztailaren 10eko Gobernu Batzordearen erabakiz eman zitzaizen terrenoa banantzeko.

Zehazki eskatzen duena hau da: Damasoro lurren banantzea formalizatzeko eskrituraren kopia baimendua Ibarra udalarean aurkezteko epea luzatzea.

Gobernu Batzordeak, aho batez, honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea Nekane Lazkano Prieto eta Aitor Otaegi Larrak eskaturiko epea luzapena eskrituraren kopia formalizatua Udalaren aurrean aurkezteko. Terrenoaren banantze eta trukatzearen eskriturarekin batera jabego erregistroan aurkeztu izanaren egiaztagiria ere aurkeztu beharko dute.

BIGARRENA: Egiaztagiria aurkezteko epea 3 hilabetekoa izango da erabaki hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Erabaki hau jakinarazi Nekane Lazkano Prieto eta Aitor Otaegi Larra jaunari.

4.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta hogeirenean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.